

DOKUMENTALAREN GIDA DIDAKTIKOA

ASKOTARIKO AHOTSAK

*Emakumeen estrategiak memoria eta  
justiziaren alde Guatemalan*



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL  
NAJOARTERKO LANIKIDETZA ETA BARRUPENARI BURUZKO BASKETA INSTITUTUA

Argitalpen hau *Trantsiziozko justizia eta kritika feminista: giza eskubideen urraketa larrien ondoriozko zigorgabetasun patriarkalaren aurkako baliabideak* proiektuaren esparruan egin da. PRO-2018K30031. GLEAren laguntzarekin.



Askotariko ahotsak. *Emakumeen estrategiak memoria eta justiziaren alde Guatemalan*

Egileak: Gloria Guzmán Orellana, Irantzu Mendia Azkue

2020



[www.hegoa.ehu.eus](http://www.hegoa.ehu.eus)

[hegoa@ehu.eus](mailto:hegoa@ehu.eus)

UPV/EHU • Zubiria Etxea  
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81 • 48015 Bilbao  
Tel.: 94 601 70 91 • Faxe: 94 601 70 40

UPV/EHU • Carlos Santamaria Zentroa  
Elhuyar Plaza 2 • 20018 Donostia  
Tel.: 943 01 74 64 • Faxe: 94 601 70 40

UPV/EHU • Campuseko Liburutegia  
Nieves Cano, 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz  
Tel.: 945 01 42 87 • Faxe: 945 01 42 87

Azaleko irudia: Sergio Daneri M. Guzmán (olio-pintura mihisean)

Imprimatzailea: Printhus, S.L.

Diseinatzailea eta Maketatzzailea: Marra S.L.

Lege-gordailua: LG BI 00071-2021

ISBN: 978-84-16257-75-1



Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Baimena duzu lan hau kopiatu, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedeetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentzia, osorik:  
<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

## Sarrera

*Askotariko ahotsak. Emakumeen estrategiak memoria eta justiziaren alde Guatemalan* dokumentalak, herrialdeko hainbat lekutako pertsona eta kolektibo feminista eta indigena ugarien iritziak jasotzen ditu. Horiek Guatemalako gatazka armatuan zehar gertatutako giza eskubideen urraketengatik justizia eskatzeko erabili dituzten estrategiak azaltzen dituzte. Lan dokumental hau Euskal Herriko Unibertsitateko Hegoa-Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuak eta Guatemalako Casa Colibrí/Rochoch Tz'ünun emakumeen kolektiboak produzitu eta koordinatu dute.

Zergatik Guatemalari buruz? Herrialde horretako emakumeen mugimenduak hainbat estrategia garatu ditu gatazka armatuan zehar gertatutako sexu- eta genero-krimenei buruzko egiaren, justiziaren, erreparazioaren eta ez errepikatzeko bermeen agendan. Dokumentalean entzuten ditugun ahotsek justiziaren ikuskera eta praktika feministaren eztabaiden oinarri teorikoa eta politikoa islatzen dute, indarkeriatik bizirik atera diren emakumeen eta hauek laguntzen dituzten kolektiboen esperientzien bitartez. Zenbait erakundek zigorgabetasunari aurre egiten diote auzitegien eta bide-laguntza juridiko-legalaren bitartez, eta beste batzuek, aldiz, indarrean dagoen justizia patriarkalaren eta kolonialaren paradigmaren ordezkotako mekanismoak bilatuz. Hori dela eta, interes handiko kasu bat da, Guatemalan ez ezik, mundu osoan justiziaren inguruan gertatzen ari diren eztabaida feministak elikatzen jarraitzeko.

Gida honen helburua da dokumentala eztabaida- eta/edo prestakuntza-eremuetan eta talde desberdinekin erabil dadin sustatzea. Gidak, bada, dokumentalaren gai nagusien gaineko hausnarketa bideratzeko gakoak ematen dituzten hainbat galdera lantzen ditu. Beste edozein prozesu pedagogikotan bezala, galderak testuinguruan jarri behar dira eta taldeak gai honen inguruan duen ezagutza-mailara egokitu. Horretarako, hasieran, gidak testuinguruari buruzko informazio laburra ematen du. Galderak ez dira zertan aurkeztutako ordenan landu, ezta guztiak saio bakar batean landu ere; izan ere, hausnarketarako abiapuntua ematen duten galderak dira. Amaitzeko, gidak dokumentalaren edukiekin lotutako erreferentzia gehigarriak biltzen ditu, baita horri buruzko datu guztiak ere, erakunde eta pertsona parte-hartzaileen izenak barne.



## Testuinguruari buruzko informazio laburra<sup>1</sup>

Guatemalako gatazka armatua (1960-1996) ezin da bereizi herrialdean nagusi den sistema baztertzailer, arrazista eta pobrezia-sortzailearen izaera historikotik; horrek batez ere herri indigenei kalte egin baitie. Sistema hori, bada, espainolen inbasioaren ondorioz ezarri zen eta, gerora, elite kreolen eta ladinoen botere-estamentuek hura betikotu dute; izan ere, elite horiek Estatuaren erabiltzen dute egiturazko indarkeria eta esplotazioa legitimatzeko.

Gatazka armatuaren berehalako faktoreek zerikusia dute Estatuaren autoritarismo zaharkituarekin, eremu politikoak ixtearekin eta protesta sozialaren aurkako erantzun errepresiboekin. Gerra Hotzaren esparruan AEBk sustatutako Segurtasun Nazionalen Doktrinari jarraituz, Guatemalako Estatuak “barne etsaia” eratu zuen eta, horren ondorioz, biztanleen gehiengo zabal batek Estatuaren errepresioaren inpaktuak pairatu zituen. Testuinguru horretan, bide armatua aukeratu zuten hainbat talde matxinatu sortu ziren eta hauek, apurka, indarrak batu zituzten 1982an Guatemalako Batasun Iraultzaile Nazionala (URNG) sortu zuten arte. Gerra 1996an amaitu zen, 36 urte eta gero, Guatemalako gobernuak eta URNGk Bake Sendoa eta Iraunkorrerako Akordioa sinatzearekin batera

Historia Argitzeko Batzordearen (CEH) kalkuluen arabera, 160.000 exekuzio eta 40.000 desagertze behartu baino gehiago egon ziren (CEH, 1999: 1. kap., 72). Gainera, Batzordeak 626 sarraski erregistratu zituen. Horien erantzule Estatuko segurtasun-indarrak eta batez ere Armada izan ziren eta hauek Autodefentsa Zibileko Patruilak (PAC) bezalako egitura paramilitarren eta mandatari militarren laguntza izan zuten (CEH, 1999: 3. kap.). Talde horiek, gainera, ankerkeria ekintzak egin zituzten biktimak exekutatu aurretik.


---

1 Iturria: Guzmán Orellana (2020).

Halaber, Batzordeak ondorioztatu zuen exekuzioen aurretik biktimak sexuaren arabera banatu izana sexu araberako errepresioaren adierazle bat dela. Izan ere, gizonak zein emakumeak exekutatuak izan baziren ere, emakumeek aurretik sexu-indarkeria pairatu behar izan zuten, beste zenbait krimenen artean. Hau da, genozidio-politika hura emakumeekin grinatu zen, hauek haurdun zeudenean ere, "barne etsaiaren haziarekin" bukatzeko helburuz. Guatemalako emakume indigenek historikoki bizi izan duten bazterketa eta desjabetzea modu ankerrago batean -ahal bada- sakondu eta erakutsi zen gatazka armatuan zehar.

CEHk sexu-indarkeriako 1.465 egitate erregistratu zituen baina termino absolutuetan horiek azpi-erregistratuta daudela onartzen du, baita giza eskubideen beste urraketa batzuk ere. Sexu-indarkeriako biktima guztien artean, talde etnikoari dagokionez, % 88,7 maiak izan ziren, % 10,3 ladinoak eta % 1 beste talde batzuetakoa. Biktimen adinari buruzko informazioa lortu zen kasuetan, tarte oso zabala da: % 35 0 eta 17 urte bitartekoak ziren, % 62 18 eta 60 urte bitartekoak eta %3 60 urtetik gorakoak (CEH,1999: 2. kap., 23).

Emakumeen aurkako urraketen ehunekoak,  
urraketa motaren arabera (5 nagusiak) GUATEMALA (1962-1996)



Iturria: CEH (1999: XII. liburukia, III. eranskina, 221).

Nazioarteko Zuzenbidean gatazka armatuetan egindako giza eskubideen urraketek dagokien egia, justizia eta erreparazioa lortzeko aurrerapausoak eman diren arren, mundu osoan zigorgabetasun marko bat da nagusi. Hori ahanztura- eta isiltasun-politikak inosatuz sustatu da, batez ere Estatuaren indarkeriari dagokionez, Guatemalan gertatzen den bezala. Gainera, emakumeen aurka egindako krimenetan zigorgabetasuna are latzagoa da. Horrek iraganeko krimenei dagokien egia, justizia eta erreparazioa lortzeko eskubidea urratzen du eta, gainera, biktimek gaur egun dituzten eskubideak erabiltzea oztopatzen du (Mendia Azkue, 2012). Horren aurrean, bizirik atera diren emakumeek justizia eskatzen jarraitzen dute eta, batzuetan oso emaitza garrantzitsuak lortzen dituzte, Sepur Zarcoren kasuan bezala.

## Sepur Zarcoren kasua<sup>2</sup>

2016ko otsailaren 26an, Guatemala Hiriko "A" taldeko Arrisku Handieneko Zigor Epaiko Lehen Auzitegiak militar ohi baten eta mandatari militar ohi baten aurkako zigor-epaia eman zuen. Haiek Polochic Bailarako Sepur Zarco komunitatean kokaturik zegoen destakamentu militarren arduradunak izan ziren gatazka armatuan zehar. Epaia araberan, auzipetuek hamaika emakume maia q'eqchi'-ri sexu-indarkeria eta tratu umiliagarri eta laidogarriak eragin zizkieten. Gainera, hiru emakumeren hilketagatik eta komunitateko zazpi buruzagiren desagertze behartuagatik ere zigortu zituzten ([http://www.mujeostransformandoelmundo.org/sites/www.mujeostransformandoelmundo.org/files/descargas/sentencia\\_caso\\_sepur\\_zarco.pdf](http://www.mujeostransformandoelmundo.org/sites/www.mujeostransformandoelmundo.org/files/descargas/sentencia_caso_sepur_zarco.pdf)).

1982an, lurraren aldeko borrokan ziharduten eskualde hartako komunitateko buruzagiak atxilotu eta desagerrarazi zituen armadak, sexu bortxaketak eragin eta komunitateetan etxeak eta uztak suntsitu zituen. "Ere hartako destakamentu asko finka pribatuetan eraiki zituzten, komunitateko kideen eskulanaren bitartez. Finken jabeek -q'eqchi' biztanleek lurraren jabetza lortzeko lehian ibili ziren haiekin-destakamentuetarako lurak ez ezik komunitateko buruzagien izenak ere eman zizkieten armadako kideei" (<http://unamg.org/publicaciones>). Gertaera horien ondoren, armada Sepur Zarcoko destakamentuan kokatu zen, eta han, inguru hartako emakume eta neskatxa asko, desagerrarazitako gizonen emazteak barne, behartu egin zituzten militarrentzako jakiak prestatzera, haien zerbitzura egotera eta haien uniformeak garbitzera, eta behin eta berriz eta sistematikoki bortxatu zituzten. Egoerak horrek sei urte iraun zuen, 1988an destakamentua kendu zuten arte. Armadako goi agintariek planifikatu eta zuzenduriko jardun kriminala izan zen.

2000ko hamarkadatik aurrera, sexu-indarkeria pairatu zuten eskualdeko emakumeekin lanean hasi ziren emakumeen hainbat erakunde, eta laguntza psikosoziala eskaintzeaz gain, eskubideei buruzko prestakuntzak burutu zituzten. Bide horri esker, 2010ean, gatazka armatuan emakumeen aurka erabilitako sexu-indarkeriaren kontrako Kontzientzia Auzitegia antolatu zuten Guatemala Hirian. Hori balio sinboliko handiko ekintza izan zen eta, horri esker, bizirik irten ziren emakume biktimetako askok sistema nazionalaren aurrean justizia eskatzen jarraitu zuten eta 2011n zigor-kereila aurkeztu zuten. Sepur Zarcon sexu-indarkeria pairatu eta

---

2 Iturria: Hegoa. *Bakearen aldeko aktibismo feministaren mapa*.  
[http://www.hegoa.ehu.es/mapa\\_paz/guatemala\\_2\\_eus.html](http://www.hegoa.ehu.es/mapa_paz/guatemala_2_eus.html)



bizirik iraun zuten emakumeei auzi estrategiko horrekin laguntzeko, Guatemalako Emakumeen Batasun Nazionala (UNAMG), Ikasketa Komunitarioko eta Ekintza Psikosozialeko Taldea (ECAP) eta Mujeres Transformando el Mundo (MTM) erakundeek Rompiendo el Silencio y la Impunidad (Isiltasuna eta zigorgabetasuna hausten) aliantza osatu zuten.

Sepur Zarcoko epaiketa historikoa bizirik irten ziren biktimen ausardiari eta tinkotasunari esker egin ahal izan zen, bai eta mugimendu feminista eta giza eskubideen aldeko mugimenduko erakundeek laguntzari esker ere. Kasu horretan eman zen epaia eta haren ostean etorri zen erreparazio duinerako entzunaldia –zeinetan indarkeriaren ondorio material, fisiko eta psikologikoengatik erreparazio-neurriak agindu zituen Auzitegiak–, aurrekaririk ez duten lorpenak dira gatazka armatuetan emakumeei eragindako sexu-krimenen zigorgabetasunaren aurkako borroka globalean.



## Hausnarketa eragiteko galderak

➔ Dokumentala ideia-mosaiko batekin hasten da, Guatemalako hainbat erakunde eta herritako emakumeei egindako galdera honetatik abiatuta: *Zer da justizia?*



Zeintzuk dira haien erantzunetan justiziarri buruz ageri diren ideia nagusiak?

→ Emakumeen mugimenduak eginkizun estrategikoa izan zuen 1996an sinatutako Guatemalako Bake Akordioen negoziatioetan emakumeen eskaerak txertatzeko. Partehartze hori, batez ere, Gizarte Zibilaren Asanbladaren (ASC) esparruan eman zen. Asanblada 1994an sortu zen bake-negoizazioen funtsezko gaiak lantzeko foro sozial gisa.

“Emakumeen Sektorearentzat, bake-akordioen negoziatioez hitz egiten zenean, oso garrantzitsua izan zen Armadak hainbat herritako emakumeen aurka erabilitako sexu-indarkeriaz hitz egitea, gerrako strategiaren zati gisa. Guretzat hori puntu politiko oso estrategikoa izan zen. Egiaren Batzordearen esparruan, sexu-indarkeria gizateriaren aurkako krimenez eta emakumeen aurkako tortura-ekintzatzat jotzen hasi zen, eta emakumeen gorputzak gerrako harrapakintzat. Guretzat oso garrantzitsua da bistaratzea hori emakumeen mugimendu feministaren barne eztabaida bat izan dela eta horrek bidea zabaltu zuela gaur trantsizioko justizia horri buruz hitz egin dadin. Halaber, bistaratu nahi dugu iraganean sexu-indarkeria egon zela, bereziki, gatazka armatuan, eta horrek lotura duela orainarekin”. Martha Godínez, Emakumeen Sektorea.




Dokumentaletik hartutako argazkia.



Zer irakasten digu Emakumeen Sektorearen esperientziak emakumeen mugimendu feministak bake prozesuetan duen zereginari buruz?

→ Emakumeek justiziaren eta erreparazioaren alde egindako lanaren elementu estrategikoetako bat da gatazka armatuko eta gainerako denborako sexu- eta generokrimenen arteko lotura ezartzea. Horregatik dira garrantzitsuak indarkeria-*continuum*aren salaketa publikoa egiteko ekintzak. Hona hemen horri buruzko bi aipamen:



Dokumentaletik hartutako argazkia.

“Guatemalako emakumeek pairatzen duten indarkeria euren historiarekin lotuta dago, historia kolonialarekin, independentziari dagokion historiarekin eta Guatemalako Estatua sortu zenetik gaur egunera arteko historiarekin. Historia kolonialak erakusten digunez, hausturako hiru mende daude, hau da, hiru mende zeinetan kultura indigenak ezabatzen dituzten eta erregimen berria ezartzen duten. Ondare-, erlijio- eta ekonomia-erregimen berri horrekin, sexu-harreman berriak ezartzen dira eta emakumeak objektu bihurtzen dira, ez dute euren bizitzari buruz erabakitzen; konkistatzaileek erabiltzen dituzten objektuak dira”. Irma Alicia Velásquez Nimatuj, antropologoa.




Dokumentaetik hartutako argazkia.

“Erakundearen baitan [UNAMG] sentsibilizazio eta zabalkunde estrategia bat diseinatzeko hasi zen, [gatazka armatuan] emakumeen aurkako indarkeriak zer eragin izan zuen hausnartzeko. Orduan, iraganeko eta gaur egungo indarkeria delitua dela kontatzen hasi ginen -beste erakunde batzuekin batera, jakina-. Sexu-indarkeria delitua da, 30 urte igaro badira ere”. Ada Valenzuela, UNAMG.



Zer faktorek mantentzen dute emakumeen aurkako indarkeria-*continuum*a testuingurua aldatu arren?

→ Gatazka armatuko emakumeen aurkako indarkeriaren eta batez ere sexu-indarkeriaren inguruko isiltasuna hausteko beharrezkoa izan da bizirik iraun duten emakume biktimei laguntza psikosoziala eta antolakuntzakoa ematea eta haiek ahalduz laguntzea.



Dokumentaletik hartutako argazkia.

“Gizarte erakundeen, teoria-esparruen eta abarren mailan sortutako baldintzekin, prozesua kolektibizatua izan da: haiek [sexu-indarkeria pairatu eta bizirik iraun duten emakumeak] dira erdigunea, baina haien inguruan ehun bat sortu da, emakumeek honako honi erantzuteko aukera izan dezaten: ‘Sarraskiez, heriotzez, deserrotzeaz, lekualdatzeaz edota desjabetzeaz gain, inork pairatu izan du sexu-indarkeria?’ Norbaitek galdera hori egitean bidea zabaldu zuen, emakumeek erantzuten ausartzeko: ‘Bai, nik sexu-indarkeria pairatu nuen’”. Sara Álvarez Medrano, CALDH.



Zer erronka dakartza lan horrek mugimendu feministarentzat eta giza eskubideen aldeko mugimendu mistoarentzat?

→ Oroimen historikoko lana erakundeek justizia eskatzeko erabiltzen duten tresna politikoetako bat da. Estatuaren ahanztura- eta inpunitate-politikaren aurrean, emakumeen erakundeak biktimen oroimenaren eta duintasunaren alde ari dira lanean. Hori da Guatemalako Alargunen Koordinakunde Nazionalaren (CONAVIGUA) kasua.

“CONAVIGUAren lanaren helburuetako bat da herrialdea desmilitarizatzeko borrokatzea, desagertuak bilatzea, sexu-indarkeriaren biktima diren emakume guztiei bide-laguntza ematea eta oroimena duintzeko laguntza bilatzea, ez soilik hildakoena, baizik eta bizitza duintzea, emakume guztien borroka. (...) Uste dugu garrantzitsua dela egia, justizia eta Estatuaren erantzukizuna bilatzea, gatazka armatuaren biktimei ordaina emateko (...) Halaber, honelako memorialak [Oroimenaren Paisaiak Memoriala] eraikitzeak lan egiten dugu, belaunaldi berriek iraganeko historia eta senideei gertatutakoa ezagut dezaten, haur eta gazte askok ez baitzuten gerra bizi izan baina haien aitita-amamek eta gurasoek bai. Horregatik oso garrantzitsua da historia gogoratzeko memorialak edo monumentuak eraikitzea, gutarrak gogoratzeko”. Rosalina Tuyuc, CONAVIGUA.



Dokumentaetik hartutako argazkia.



Zer kontzeptu- eta estrategia-elementu ematen ditu oroimen historikoa berreskuratzeak justiziaren aldeko lanean?



→ Dokumentalean aurkezten diren zenbait ideia bizirik iraun duten emakume biktimei erreparazioa emateko moduei dagozkie. Horren adibide dira Sepur Zarcoren kasuari buruzko epai historikoan sartutako erreparazio-neurriak.



Dokumentaletik hartutako argazkia.

“Erreparazio-eredu hau tartean sartzen du Estatua, erreparatzeko ardura duen erakunde bezala, baina batez ere indarkeria-egitateen aurretik ere zeuden zaurgarritasun-baldintzak ezabatzeko ardura duena, hala nola arrazakeria, matxismoa eta gizarte-desparekotasuna. Gatazka armatuaren kausek irauten dute. Horietako bat eskualdean lurraldeagatik dagoen lehia da. Baldintza ekonomiko horiek ez dira aldatu Sepur Zarco komunitatean eta hori landu behar genuenaren zati bat da. Horren ondorioz, erreparazio neurri horietan pentsatzen hasten gara eta Estatua da horiei erantzun behar diena. (...) Oso oinarrizko estandarra da, funtsezkoa, pertsona orok izan beharko lituzkeen eskubideak, hala nola osasunerako eskubidea, etxebizitza duina... Hala ere, eskubidea horiek ez dira benetakoak herrialdeko komunitate gehienetan eta, hortaz, ezin dugu estandar altuago batean pentsatu oinarri hori gabe, oinarrizko baldintzak ez badaude. Paula Barrios, Mujeres Transformando el Mundo.



Testuinguruko eta gizarteko zer elementu har daitezke kontuan Sepur Zarcoren kasuko erreparazio-neurriak baloratzeko? Zer beste erreparazio-neurri pentsa daitezke?



→ Dokumentalak justiziaren aldeko lanerako hainbat ikuspegi eta estrategia aurkezten ditu. Justizia-sisteman emakumeak birbiktimizatzeko esperientzia historikoan oinarrituz, zenbait erakundeek justizia- eta erreparazio-proposamen alternatiboak dituzte, biktimen osatzean eta emakumeen arteko laguntza-sareak indartzean oso zentratuta daudenak.

“Historian zehar, feministok hainbat justizia-mota probatu ditugu eta emaitza nagusiak feminismotik lortu ditugu, horrek proposatzen baitu gure ahalmenak eta guran dugun konfiantza berreskuratzea, kolektiboak sortzea eta elkarrekin egotea eta elkar babestea. Nire ustez, feminismoa iturri bat da gizarteak eta gizarte-mugimenduek horretatik ikas dezaten; izan ere, justizia eta justizia feminista nola egiten den erakusten du. Halaber, horrek Actoras del Cambio ekimenean konfiantza izatea eragiten du; emakumeok ez ezik, beste guztiok ere, gure burua humanizatzeko aukera bat dela sinestea. Eta zoragarria da maien mundu-ikuskerarekin bat egitea; izan ere, hau ongizate pertsonal eta kolektiboan eta gizarte-sareen ongizatean oinarritzen da eta justizia-proposamen hori aberasten baitu”. Liduvina Méndez, Actoras de Cambio.



Dokumentaletik hartutako argazkia.



Zer balorazio ditu Actoras del Cambio erakundeak adierazitako justizia-ikuspegiak?  
Zer esan nahi du “elkar babestu” ideiak?

→ Guatemalako erakunde desberdinen arteko lan-aliantzak funtsezkoak izan dira justizia exijitzeko. Gaur egun, gero eta argiagoa da beharrezkoa dela historia kolonial luzea duten testuinguruetako gizarte-subjektuen arteko aliantzak kritikoki aztertzea.



Dokumentaletik hartutako argazkia.

“Emakumeen erakundeek giza eskubideen erakundeekin duten aliantza aberatsa eta baliagarria izan da. Subjektu politiko garen aldetik, aliantzak egin ahal izan dugu, baina ezin izan dugu emakume ladino, mestizo, atzerritar eta maien arteko desperekotasun- eta nagusitasun-harremanak desegin. Hala ere, beste une batean gaude eta honetan zenbait emakumek beste tresna batzuk ditugu, beste erreferente politiko batzuk ditugu, hala nola Sepur Zarcoko emakumeak, CONAVIGUA... Orain, ez dugu emakumeen eskaerekin bat egiten emakume izate hutsagatik; aitzitik, gure burua gizarte-subjektu gisa ikusten dugu, antzinako emakumeak erreferente bezala dituen gorputz historiko sozialki eraikia. Eta ahuleziak ere baditu; hala ere, inguruan ditugun tresnak erabili ahal izan ditugu gure burua posizionatzeko eta helburu zehatzak lortzeko”. María José Pérez Sián, ikertzailea.



Funtsezko zer ekarpen egiten ditu genero-azterketa eta azterketa antirrazistak, antiklasistak eta dekolonialak uztartzeak?

Zer erronka dakartza “emakumeen eskaerekin bat egitea ez bakarrik emakume izateagatik” planteamenduak aliantzak sortzeari dagokionez?

# Baliabide gehigarriak

## Guatemalako emakumeen eta giza eskubideen mugimenduetako zenbait erakunde

---

Actoras de Cambio:

<http://www.actorasdecambio.org.gt/>

La Cuerda elkarte:

<https://lacuerda.gt/>

Giza Eskubideen aldeko Ekintza Legalerako Zentroa (CALDH):

<https://caldh.org.gt/>

Guatemalako Alargunen Koordinakunde Nazionala (CONAVIGUA):

[www.memoriavirtualguatemala.org/?q=es/coordinadora-nacional-de-viudas-de-guatemala](http://www.memoriavirtualguatemala.org/?q=es/coordinadora-nacional-de-viudas-de-guatemala)

Ikasketa Komunitarioko eta Ekintza Psikosozialeko Taldea (ECAP):

<https://www.ecapguatemala.org.gt/>

Mujeres Transformando el Mundo (MTM):

<https://mujerestransformandoelmundo.org/>

OTRANS. Reinas de la noche:

<http://reinasdelanoche.org.gt/main.asp?clc=1555>

Guatemalako Emakumeen Batasun Nazionala (UNAMG):

<https://unamg.org/>

## Erreferentzia bibliografikoak

---

Historia Argitzeko Batzordea (CEH) (1999): Guatemala, memoria del silencio. Nazio Batuen Proiektuetarako Zerbitzu Bulegoa UNOPS, Guatemala.

<http://www.centrodememoriahistorica.gov.co/descargas/guatemala-memoria-silencio/guatemala-memoria-del-silencio.pdf>

Fulchiron, Amandine (koord.), Paz, Olga Alicia eta Angélica López (2009): *Tejidos que lleva el alma: memoria de las mujeres mayas sobrevivientes de violación sexual durante el conflicto armado*, Consorcio Actoras de Cambio, Ikasketa Komunitarioko eta Ekintza Psikosozialeko Taldea (ECAP), Unión Nacional de Mujeres Guatemaltecas (UNAMG) eta F&G Editores, Guatemala. <https://www.ecapguatemala.org.gt/sites/default/files/Tejidos%20que%20lleva%20el%20alma.pdf>

- Fulchiron, Amandine (2018): *La ley de mujeres: amor, poder propio y autoridad. Mujeres sobrevivientes de violación sexual en guerra reinventan la justicia desde el cuerpo, la vida y la comunidad*, Doktoretza-tesia, UNAM. [https://www.academia.edu/38551793/La\\_ley\\_de\\_mujeres\\_amor\\_poder\\_propio\\_y\\_autoridad\\_Mujeres\\_sobrevivientes\\_de\\_violaci%C3%B3n\\_sexual\\_en\\_guerra\\_reinventan\\_la\\_justicia\\_desde\\_el\\_cuerpo\\_la\\_vida\\_y\\_la\\_comunidad](https://www.academia.edu/38551793/La_ley_de_mujeres_amor_poder_propio_y_autoridad_Mujeres_sobrevivientes_de_violaci%C3%B3n_sexual_en_guerra_reinventan_la_justicia_desde_el_cuerpo_la_vida_y_la_comunidad)
- Guzmán Orellana, Gloria (2020): "La Comisión de Esclarecimiento Histórico en Guatemala. Bases para un largo camino de verdad y justicia de género", in Mendia Azkue, Irantzu (argtz.): *Enfoque de género en Comisiones de la Verdad. Experiencias en América Latina y África*, Hegoa, Bilbo. <http://publicaciones.hegoa.ehu.es/publications/433>
- KAQLA Emakume Maien Taldea (2004): *La palabra y el sentir de la mujeres maya de Kaqla*, Guatemala.
- HEGOA eta UNAMG (koord.) (2012): *Ni olvido, ni silencio. Tribunal de Conciencia contra la violencia sexual hacia las mujeres durante el conflicto armado en Guatemala*, Hegoa, Bilbo/UNAMG, Guatemala. <http://publicaciones.hegoa.ehu.es/publications/279>
- Lux, Otilia (2019): "Vivimos una Guatemala llena de mucho dolor", *Prensa Comunitaria*, Elkarriaketa, Guatemala. <https://www.youtube.com/watch?v=27PkQ1ZTcwl>
- Mendia Azkue, Irantzu (2012): "Justicia transicional: dilemas y crítica feminista", *Hegoa lan-koadernoak*, 59. zkia., <http://publicaciones.hegoa.ehu.es/es/publications/300>
- Mendia Azkue, Irantzu, Guzmán Orellana, Gloria eta Iker Zirion Landaluze (2017): *Género y justicia transicional. Movimientos de mujeres contra la impunidad*, Hegoa, Bilbo. <http://publicaciones.hegoa.ehu.es/publications/362>
- ODHAG (1998): *Guatemala, nunca más*, Oroimen Historikoa Berreskuratzeko Diozesi arteko proiektua (REMHI), Guatemalako Artzapezpikutzaren Giza Eskubideen Bulegoa, Guatemala. <https://www.odhag.org.gt/html/Default.htm>
- Velázquez Nimatuj, Irma Alicia (2019): "La justicia nunca estuvo de nuestro lado". *Peritaje cultural sobre conflicto armado y violencia sexual en el caso Sepur Zarco*, Guatemala, Hegoa, Bilbo. <http://publicaciones.hegoa.ehu.es/es/publications/409>

# Dokumentalaren datuak

**Jatorrizko izenburua:** *Voces plurales. Estrategias de mujeres por la memoria y la justicia en Guatemala*

**Iraupena:** 39 minutu

**Gidoia:** Sonia Escobedo Escalante

**Ekoizpena:** María José Rosales Solano eta Sonia Escobedo Escalante. Casa Colibrí / Rochoch Tz'ünun, Guatemala

**Kamara eta argazkia:** María José Rosales Solano, Juan Rosales

**Edizioa:** María José Rosales Solano

**Edizio-laguntzailea:** Juan Rosales

**Hemeroteka Artxiboa:** Juan Rosales

**Soinu Banda eta musika:** Basico3

**Lokuzioa:** Evelyn Orellana

**Abestia:** Rebeca Lane-en "Ni una menos"

**Artxiboak:** Prensa Libre (digitala eta paperezkoa); Nómada; Guatevisión, Sin Reservas; Telesur; Publinews, Diario La Hora, Alianza Política Sector de Mujeres eta Actoras de Cambio kolektiboa

**Itzulpena:** Hermencia López, Carolina Yaxcal

**Elkarrizketatutako pertsonak eta kolektiboak:**

Ada Valenzuela (UNAMG)

Bernardina Yumún

Catalina García, Caja Lúdica

Claudia Acevedo

Demecia Yat Xol, Sepur Zarcoko amama

Elsa Rabanales, Actoras de Cambio kolektiboa

Esperanza Tubac, San Juango emakumeen elkarte (AGIMS)

Gilberta Jiménez (AMIXMAXAJ)

Giovana Lemus, Emakumeen Guatemalako taldea (GGM)

Iliana Beatriz Tzín Quixchán, Petén Ixqik emakumeen elkarte

Irma Alicia Velásquez Nimatuj

Juana Bacá, Emakume Ixhilen Sarea- l'x Defendatzailtza

Liduvina Méndez, Actoras de Cambio kolektiboa

Lola Vásquez, OTRANS Reinas de la Noche

Lucy Andrea Itzol Murcia

Magaly del Rosario López

María Jerónimo

María José Pérez Sián

Martha (Tita) Godínez, Alianza Política Sector de Mujeres

Maya Alvarado

Ocelia Flores, Garapen integralaren aldeko emakumeen elkarte multikulturala

Paula Barrios, Mujeres Transformando el Mundo (MTM)

Rosalina Tuyuc, Guatemalako Alargunen Koordinakunde Nazionala (CONAVIGUA)

Rosario Jerez, Fuego y Resistencia emakumeen kolektiboa

Sara Álvarez Medrano, CALDH

Silvia Arenas, 29 de diciembre komunitatea

Silvia Pichiyá

Sonia Acabal, REDNOVI

#### Eskerrik asko:

Mujeres Transformando el Mundo, Emakumeen Guatemalako Taldea, Oroimenaren etxea, CONAVIGUA, Naköj irrati komunitarioa, I'x Saq'il Iq musika taldea, 2019ko Kontzientzia Auzitegiko erakundeak, Sepur Zarco komunitatea, batez ere komunitate-etxea zabaldu ziguten amamak.









DOKUMENTALAREN  
GIDA DIDAKTIKOA

**ASKOTARIKO AHOTSAK**

*Emakumeen estrategiak memoria  
eta justiziaren alde Guatemalan*